

SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

19. BILERA AKTA

EGUNA: MARTXOAK 6, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ZUMARRA GELA

BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA
IRAIN GURASO ELKARTEA
GEROA BAI TALDEA
MAIRU ANTZERKI TALDEA
SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA
LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA
LESAKAKO ABESBATZA
GILTZARRI ABESBATZA
MUSIKA ESKOLA
MUSIKA BANDA
LESAKAKO SOINULARIAK
TXISTULARI TALDEA
EH BIDU TALDEA

AINTZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da

DIRU-LAGUNTZAK

Astean zehar eragileekin eginiko bilerak aipatzen dira. Hiru eragile falta dira, baina berehala egingen dira beraiekin ere.

Aurtengo eskaerei begira eta 2020arekin konparatuta, ohiturazkoak ia berdin, funtzionamendu eskaera gehiago eta %30 esleitu da 1.000 € gehienez eta bertze jarduerak %57 egokitu da. Hasierako zirriborroa da, baina ez dirudi gehiegi aldatuko denik. Nahiko antzekoa izanen da funtzionamenduarena kenduta.

Eragileekin egin diren bileren akta jaso da baina akta hauek udalan geldituko dira, kultura batzordean pasako dira bino bertan geldituko dira.

Gaizkak, Txistulari Taldea eta Mairu Antzerki Tailerrarekin egin zen bileran aipatu bezala, justifikazioaren inguruko proposamenaren arira bere ikuspuntua azaltzen du. Justifikazioaren inguruan aurtengo proposatu denak eragile ttikie eraginen dio eta ondorioz kultura aniztasunari. Bertzalde bere ustez gaia Sorginxulon eztabaidatu behar da eta gero udalak erabakitzen badu ere, jakinarazi bilgunearen iritzia edo postura. Ibanek gaia nola dagoen esplikatzen du. Justifikazioaren inguruan eztabaida sortu da udalan, ikuspuntu desberdinak daude, batzuk 2020an bezala ikusten dute, bertze batzuk horrek eragiten ahal duena eta gehiago justifikatu beharko zela...erdi bideko proposamena aztertu da eta momentuz planteatzen dena da 500 € edo gehiago esleitutako kasuetan, %15 gehiago justifikatu beharko dela.

Honen inguruan hitz egin ondoren, Sorginxulok bere postura jakinaraztea adosten da eta aurtengo aldatetarekin ados edo ez bozkatzea planteatzen da. Bozketaren kontua aipatu ez denez bilera baino lehen, eta kontutan hartuta eragile bakoitzak bere kideekin solastu beharko duela, bertaratutako bakoitzak bozka bat duela eta batek eragile bat baino gehiago ordezkatzeko duela, hurrengo Sorginxulon (apirilak 17) bozkatzea erabakitzen da.

Ekitaldietan sarrera jartzeko aukera planteatzen da, egiteko aukera dago beti ere defizit hori estali arte.

Hau horrela dirulaguntzen ebazpena hurrengo Sorginxulo eta apirilaren 19ko kultur batzordearen ondoren egingen da.

ERAGILEEN URTEKO PROGRAMAZIOA

Bertaratutako eragileek banan banan urteko plangintzaren laburpena azaltzen dute:

- **Bertso Eskola:** orain apirilan iazko ekitaldi bat, badirudi arazorik gabe egingen dena, ohiko ekitaldiak eta bertso musikatuak sartu dira aurten.
- **Ikastola:** Txoko Txiki, hitzaldia eta haurraren eguna.
- **Soinulariak:** ez dira hasi ensaiatzen, beldurra, adin desberdinetako jendea dago, momentuz geldirik, ea nola doan gauza.
- **Abesbatza:** ez dira hasi ensaiatzen, beldurra, adin desberdinetako jendea dago, momentuz gelditik, ea nola doan gauza. Kantuz saioa bat proposatu dute.
- **Giltzarri:** ensaiatzen dute, talde ttikitan eta badituzte ekitaldi batzuk, ahal direnak egingen dire.
- **Jubilatuk:** memoria tailerra, soinketa eta musikoterapia egine dituzte. Bertzelako otorduak eta ez dire egingen eta ea nola doan gauza.
- **Txistu:** entsaioak egiten dituzte tarteka, ohiturazkoak ahal direnak egingen dire, karrikabueltak adibidez, Danboligenak iazko ekitaldi ere egin nahi da, apirila aldera egin nahi zen bino ez dute ikusten eta iraila-urria aldera egitea pentsatu da bino ea nola doan gauza.
- **Mairu Antzerki Tailerra:** sormen lanik ez da izanen aurten, orain gutti plazaratu da azkeneko lana, eta abenduan keinu leihoak aurreikusita dago.
- **Arrano:** betiko moduan zakuzaharrak eta bertso Saioa sanferminetan. Zakuzaharren kasuan proposamen bat egin zen, udalatik ez zen ikusi eta azkenean ez zen egin. Aurten bai proiektu berri bat sartu da, testigantza batzuek grabaketa.
- **Musika Eskola:** ikasturtea hasi eta arazorik gabe jarraitzen du. Emanaldiak edo kontzertuak hori da egiten ari ez dena, astelehenean bilera egingen da eta hor planteatuko dute zerbait egin edo ez.
- **Musika Banda:** martxo geroztik ez dute ensaiatu, talde haundia da, batzuk bai hasi nahi dute bertze batzuk ez, beldurra, adin tarte desberdinak, herri desberdinetakoak...ea nola doan gauza.
- **Tantirumairu Dantza Taldea:** aurtengoan herriko dantzarien eguna antolatu dute martxoaren 20rako, neurri guztiak betez eta sanferminetakoa momentuz ikusiko da.

Sanferminen inguruan galdetzen da eta dena airean dagoela aipatzen da.

LIBURU XURIA

Ttipi-Ttapan dago.

AGENDA

Harriondoako emanaldien excella erakusten da, aurrekontuan nola doan gauza momentuz hitzartuta dagoenarekin.

Udako Zikloa forma ematen hasiko da, kelako ikuskizunak, xumeak eta publiko eta disziplina desberdinetakoak. Abesbatzaren Kantuz saioa hor sartzea planteatu da. Martxelen entsaio ireki bat ere, Estitxu Pinatxo, Ainara Ortega, Mainerrek 7neomak taldea aipatzen du....

Bixkantxeneko plazako eskailerak, akzesibilitatea...aipatzen da, ez da egokiena. Zerbait pentsatu beharko da.

Mattanek aipatzen du apirilaren 16an komikiaremn aurkezpena egingen dela. Liburuaren eguneran inguruan zerbait egiteko proposamenak eskatu ziren bino ez da ezer ailegatu.